

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### SEGURTASUN SAILA

## 6273

*EBAZPENA, 2021eko abenduaren 1ekoa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena eta Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz jarriko diren Gurenet atarian Ertzaintzako komisariorde kategoriarako gordetako lanpostuen behin betiko adjudikazioak eta zerbitzu-eginkizunen esleipenak argitaratzen dituzten ebazpenak (C210/C211).*

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen eta Giza Baliabideen zuzendariaren 2021eko martxoaren 29ko Ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatian ezarritakoarekin bat etorritik (ebazpen horren bidez, Ertzaintzako komisariorde kategoriarako gordetako lanpostuak behin betiko atxikipean eta zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia argitaratu zen, merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez), eta Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak ematen dituen eskumenak baliatuz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Jakitera ematea, 2021eko azaroaren 25ean eta 29an, hurrenez hurren, Segurtasun Sailaren Gurenet atarian jarri direla Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen eta Giza Baliabideen zuzendariaren 2021eko azaroaren 24ko eta 25eko Ebazpenak, komisariorde kategoriako lanpostuen behin betiko adjudikazioak eta zerbitzu-eginkizunen esleipenak argitaratzen dituztenak, 2021eko martxoaren 29ko Ebazpenaren bidez deitutako prozeduran, merezimendu-lehiaketaren bidez (C210/C211).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 1a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,  
MIREN GOITIA GABIOLA.

Giza Baliabideen zuzendaria,  
IZASKUN URIEN AZPITARTE.